# Bestelako Xedapenak

**ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA**

**4680**

AGINDUA, 2010eko irailaren 22koa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena; honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu zentro berezietan enpleguari eusteko laguntzetarako deialdia egiten da.

Minusbaliatuak gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 37.1 artikuluari jarraiki, ezgaitasuna duten langileen inguruko enplegu-politikaren funtsezko helburuak honako hau izan behar du: langile horiek lan-sistema arruntean txertatzea (tratu-berdintasunaren printzipioaren aplikazioa bermatuko duten baldintzetan), edota, halakorik ezean, lan babestuaren formula bereziaren bidez (enplegu-zentro berezien bitartez) produkzio-sisteman sartzea.

Azken urteotan, herri-administrazioen, gizarte-solaskideen eta ezgaitasunaren inguruko elkarte- eta enpresa-sarearen konpromiso tinkoari eta jardun bateratuari esker, araudi, programa eta aurrekontu ugari egin dira ezgaitasuna dutenek enplegua errazago lortzeko, eta emaitza positiboak eman dituzte, gero eta ezgaitu gehiago txertatu baitira lan-merkatuan. Eta, zalantzarik gabe, enplegu-zentro berezien bitartez eskainitako lan babestuaren formula berezia funtsezkoa izan da Euskal Autonomia Erkidegoko pertsona ezgaituak laneratzeko. Izan ere, lana emateaz gain, gizarte- eta lan-ohiturak eskuratzeko aukera erraztu, produkzio-sisteman txertatzeko aukera eman eta enplegagarritasuna hobetzen diete pertsona ezgaituei. Beraz, zentro horiek ezinbestekoak dira ezgaitasuna duten pertsonak produkzio-sisteman txertatzeko.

Hala ere, emaitzak ez dira nahikoak inola ere, ezgaitasuna duten eta langabezian dauden pertsonen ehunekoa handiegia baita, eta pertsona horien jarduera-tasa, berriz, oso txikia, Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako herritarren tasarekin alderatuz gero.

Gainera, 2008. urtearen hasieratik zabaldu den krisialdi finantzario eta ekonomikoak euskal ekonomiaren ahultasuna ekarri du, eta oso eragin negatiboa izan du ezgaitasuna duten pertsonen enpleguan eta enplegagarritasunean. Izan ere, Euskadiko lan-merkatuan, pertsona horiek nagusiki enplegu-zentro berezietan lan egiten dute, eta gaur egungo krisialdi-

# Otras Disposiciones

**DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES**

**4680**

ORDEN de 22 de septiembre de 2010, de la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales, por la que se convocan ayudas al mantenimiento del empleo en los centros especiales de empleo de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

De acuerdo con el artículo 37.1 de la Ley 13/1982, de 7 de abril, de Integración Social de los Minusválidos, la finalidad primordial de la política de empleo de los trabajadores con discapacidad debe ser su integración, en condiciones que garanticen la aplicación del principio de igualdad de trato, en el sistema ordinario de trabajo o, en su defecto, su incorporación al sistema productivo mediante la fórmula especial de trabajo protegido, a través de los centros especiales de empleo.

En los últimos años, gracias al firme compromiso y a la actuación aunada de las Administraciones Públicas, los interlocutores sociales y el tejido asociativo y empresarial de la discapacidad, se ha desplegado una importante actividad normativa, programática y presupuestaria para favorecer el acceso al empleo de las personas con discapacidad que ha ofrecido resultados positivos, reflejados en una creciente incorporación de personas con discapacidad al mercado de trabajo. Y no cabe duda alguna que la fórmula especial de trabajo protegido, a través de los centros especiales de empleo se ha revelado fundamental para la integración laboral de las personas con discapacidad en la Comunidad Autónoma de Euskadi, puesto que facilitan la adquisición de hábitos sociales y de trabajo a las personas con discapacidad a los que dan ocupación, permiten su incorporación al sistema productivo y mejoran su empleabilidad, de manera que resultan indispensables para la incorporación de las personas con discapacidad al sistema productivo.

No obstante, los resultados son muy insuficientes puesto que el porcentaje de personas con discapacidad en desempleo alcanza cifras excesivamente altas y la tasa de actividad de las mismas es extremadamente baja si se la compara con la del resto de la población de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Además, la crisis financiera y económica que se ha desarrollado desde principios de 2008 se está traduciendo en la debilidad del conjunto de la economía vasca, y particularmente, afectando de forma muy negativa al empleo y la empleabilidad de las personas con discapacidad que, en el mercado laboral del País Vasco, se ocupan mayoritariamente en centros espe-

ak oso eragin handia izan du sektore horretan. Hori dela-eta, arriskuan dago zentro horien iraupena eta, horren ondorioz, bertan lan egiten duten pertsona ezgaituen enplegua.

Errealitate hori dela-eta, premiazko neurriak hartu behar dira pertsona ezgaituek Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-zentro berezietan dituzten lanpostuei eusten laguntzeko.

Ildo horretan, ezgaitasuna duten pertsonek enplegu-zentro berezietan duten enpleguari eusteko presako neurriei buruzko 84/2009 Ez Legezko Proposamena onartu zuen Eusko Legebiltzarrak (2009ko abenduaren 18ko buletina, 40. zenbakia). Proposamen horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko eremuan kokatuta eta dagokion erregistroan inskribatuta dauden enplegu-zentro berezietan ezgaitasuna duten pertsonen enpleguari eusten eta horientzako enplegua sortzen laguntzeko plan bat sei hilabeteko epean aurkezteko eskatu zitzaion Eusko Jaurlaritzari. Plan horrek ezgaitasuna duten pertsonek enplegu-zentro berezietan duten enpleguari eusteko berariazko programa bat sortzeko beharrezkoa den zuzkidura ekonomikoa jaso behar zuen, besteak beste. Nolanahi ere, enplegua mantentzeko eta sustatzeko eta langabeak babesteko presako neurriei buruzko Legean aurreikusitakoaren osagarria da neurri hori.

Agindu hori betez, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko eremuan kokatuta dauden enplegu-zentro berezietan ezgaitasuna duten pertsonen enpleguari eusten eta horientzako enplegua sortzen laguntzeko plan bat landu du, eta, plan horretan xedatutakoa aplikatuta, krisialdiaren ondoriozko gaur egungo egoerari aurre egiteko aparteko laguntza-programa bat arautzen da Agindu honetan. Horren arabera, enplegu-zentro berezietarako diru-laguntza bat ezarri da garuneko paralisia, gaixotasun mentala, edota ezgaitasun intelektuala, fisikoa edo sentsoriala duten pertsonek betetzen duten lanpostu bakoitzeko, betiere pertsona horiek % 33ko edo hortik gorako ezgaitasun-maila badute, eta 2010. urtean berdin jarraitzen badute.

Plana eta Agindu hau Europako Gizarte Funtsaren Euskal Autonomia Erkidegorako programazioan txertatuta daude, ezgaitasuna duten pertsonak laneratzea Europako funts horrek Euskadin aplikatu beharreko lehentasunezko ildoetako bat baita.

Horri jarraiki, honako hau xedatu dut:

***1. artikulua.***– Xedea eta baliabide ekonomikoak.

1.– Agindu honen xedea honako hau da: EAEn kokatuta dauden enplegu-zentro berezietan ezgaitasuna duten pertsonen enpleguari eusteko laguntzetarako deialdia arautzea 2010eko ekitaldian.

ciales de empleo, que representan uno de los sectores donde la actual crisis ha tenido más incidencia, estando en peligro su propia subsistencia y, por consiguiente, el empleo de las personas con discapacidad que trabajan en los mismos.

Esta realidad exige introducir medidas urgentes con el objetivo de contribuir al mantenimiento de puestos de trabajo de personas con discapacidad en los centros especiales de empleo de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

En este sentido, el Parlamento Vasco aprobó la Proposición no de Ley 84/2009, relativa a medidas urgentes de apoyo al mantenimiento del empleo de personas con discapacidad en centros especiales de empleo (BO Parlamento Vasco 18 diciembre 2009, número 40), instando al Gobierno Vasco a presentar, en un plazo de seis meses, un plan de apoyo para el mantenimiento y creación del empleo de personas con discapacidad en centros especiales de empleo ubicados en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi y que figuren inscritos como tales en el registro correspondiente. Dicho plan había de contener, entre otras acciones, la dotación económica necesaria para la creación de un programa específico para el mantenimiento del empleo de las personas con discapacidad en centros especiales de empleo, medida complementaria a la prevista en la Ley de medidas urgentes para el mantenimiento y el fomento del empleo y la protección de personas desempleadas.

Cumpliendo con este mandato, el Departamento de Empleo y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco ha elaborado el Plan de apoyo al mantenimiento y creación del empleo de personas con discapacidad en centros especiales de empleo ubicados en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi, y en aplicación de lo dispuesto en el mismo, se regula en esta Orden un programa extraordinario de ayudas para afrontar la situación actual de crisis, estableciendo para los centros especiales de empleo una subvención por cada puesto de trabajo ocupado por personas con parálisis cerebral, enfermedad mental, discapacidad intelectual o física o sensorial, con un grado de discapacidad reconocido igual o superior al 33%, y que se mantengan durante el año 2010.

Tanto el Plan como la presente Orden se integran así mismo en la programación del Fondo Social Europeo para la Comunidad Autónoma Vasca, en cuanto a que la incorporación de personas con discapacidad constituye una de las líneas prioritarias de aplicación de este fondo europeo en el País Vasco.

En su virtud, dispongo:

***Artículo 1.***– Objeto y recursos económicos.

1.– Es objeto de la presente Orden la regulación de la convocatoria de ayudas de apoyo al mantenimiento del empleo, durante el ejercicio 2010, de las personas con discapacidad en los centros especiales de empleo radicados en la CAPV.

2.– Agindu honen xedea betetzea helburu duten baliabide ekonomikoak 2.000.000 eurora iristen dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituetatik lortuko dira. Kopuru horren % 50 Europako Gizarte Funtsak finantzatuko du, 2007-2013ko Euskadiko EGF Programa Operatiboaren esparruan.

***2. artikulua.***– Diruz laguntzeko moduko jarduna.

Garuneko paralisia, gaixotasun mentala, edota ezgaitasun intelektuala, fisikoa edo sentsoriala duten pertsonek enplegu-zentro berezietan betetzen dituzten lanpostuei eusteko emango da diru-laguntza, betiere pertsona horiek 2010eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarte % 33ko edo hortik gorako ezgaitasun-maila badute.

***3. artikulua.***– Diru-laguntzaren onuradunak.

Euskal Autonomia Erkidegoko lantokietako lanpostuak kontuan hartuta, Enplegu Zentro Berezien Erregistroan inskribatuta dauden enplegu-zentro bereziak izan daitezke Agindu honetan aurreikusitako laguntzen onuradun.

***4. artikulua.***– Diru-laguntzen zenbatekoa.

1.– Lanaldi osorako kontratatutako pertsonek betetako lanpostu bakoitzak 425 euroko diru-laguntza jaso ahal izango du gehienez.

2.– Lanpostua betetzen duen pertsona lanaldi partzialerako kontratatuta badago, lan-kontratuan agertzen den lanaldiaren iraupenak hitzarmen aplikagarrian ezarritako lanaldi osoarekiko duen proportzioa aplikatuko zaio aurreko paragrafoan ezarritako diru-laguntzaren zenbatekoari.

***5. artikulua.***– Eskabideak eta agiriak.

1.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzak jasotzeko eskaera Aginduaren eranskinean agertzen den eredu ofizialaren bidez aurkeztu beharko da. Eredu hori http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-emplform/es web-orrian eta Herritarren Arretarako Zerbitzuaren (Zuzenean) bulegoetan egongo da eskuragarri:

– Bilbon: Kale Nagusia, 85.

– Donostian: Andia kalea, 13.

– Gasteizen: Ramiro Maeztu kalea 10, behea.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan zehaztutako edozein baliabide erabiliz ere aurkeztu ahal izango dira eskaerak.

2.– Eskabidearekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

a) Gizarte Segurantzarako kotizazioko dokumentuen kopia (2010eko urtarrileko TC2 ereduak).

2.– Los recursos económicos destinados al cumplimiento del objeto de la presente Orden ascienden a 2.000.000 euros, procedentes de los correspondientes créditos presupuestarios establecidos al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco. El 50% de esta cuantía está cofinanciada por el Fondo Social Europeo en el marco del Programa Operativo FSE del País Vasco, 2007-2013.

***Artículo 2.***– Actuación subvencionable.

Se subvencionará el mantenimiento de los puestos de trabajo de los centros especiales de empleo ocupados por personas con parálisis cerebral, enfermedad mental, discapacidad intelectual o física o sensorial, con un grado de discapacidad reconocido igual o superior al 33%, durante el periodo comprendido entre el 1 de enero y el 31 de diciembre de 2010.

***Artículo 3.***– Beneficiarios de la subvención.

Podrán ser beneficiarios de las ayudas previstas en esta Orden, en relación con los puestos de los centros de trabajo radicados en la Comunidad Autónoma de Euskadi, los centros especiales de empleo que figuren inscritos como tales en el Registro de Centros Especiales de Empleo.

***Artículo 4.***– Importe de las ayudas.

1.– Cada puesto de trabajo ocupado por persona contratada a tiempo completo podrá ser subvencionado con un importe máximo de 425 euros.

2.– En el supuesto de que la persona que ocupe el puesto de trabajo se encuentre contratado a tiempo parcial, a la cuantía de subvención que se establece en el párrafo anterior, se le aplicará la proporción que represente la duración de la jornada que figure en el contrato de trabajo en relación a la jornada laboral completa establecida en el convenio de aplicación.

***Artículo 5.***– Solicitudes y documentación

1.– La solicitud de las ayudas previstas en esta Orden deberá presentarse mediante el modelo oficial recogido en el anexo a la misma, que se encontrará disponible en http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-emplform/es y en las oficinas del Servicio de Atención Ciudadana-Zuzenean:

– En Bilbao: c/ Gran Vía 85.

– En Donostia-San Sebastián: c/ Andía 13.

– En Vitoria-Gasteiz: c/ Ramiro de Maeztu 10-bajo.

Asimismo, la presentación de solicitudes podrá realizarse conforme a cualquiera de los medios previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2.– Junto con el impreso de solicitud, deberá presentarse la siguiente documentación:

a) Copia de los documentos de cotización a la Seguridad Social, modelos TC2, correspondientes al mes de enero de 2010.

b) Diru-laguntzaren xede diren lanpostuen zerrenda, honako hauek adierazita: lanpostua betetzen duen pertsonaren kontratu mota, enpresako alta-data, kontratuan jasotzen den lanaldiaren ehunekoa, urteko ordainsari gordina eta ezgaitasun mota eta maila.

c) Enpresaren egoera ekonomikoa azaltzen duen memoria, finantza-desoreka izateko eta lanpostuak galtzeko balizko arriskua zein den adierazten duena, hala badagokio.

d) Diru-laguntza eskatzen duen erakundeak zergabetebeharrak beteta dauzkala egiaztatuko duen Foru Ogasunaren ziurtagiri eguneratua, bi aletan.

Zor bat atzeratzea lortzen duen erakundeari ordainketak eguneratutzat joko zaizkio, baina agirien bidez egiaztatu beharko du hori guztia.

e) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren Probintzia Zuzendaritzaren ziurtagiria, aurreko idatzzatian aurreikusitakoaren ildotik.

f) Zentroa Enplegu Zentro Berezien Erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria edo bestelako agiria.

3.– Eskabideak osorik betetzen ez badira edo aurreko paragrafoan adierazitako aginduzko dokumentazioa falta bada, erakundeari errekerimendua egingo zaio hamar eguneko epean akatsa zuzen dezan edo aginduzko dokumentuak aurkez ditzan. Era berean, hala egin ezean bere eskaerari uko egiten diola ulertuko da, eta Administrazioa behartuta geratuko da berariazko ebazpena ematera eta ebazpen hori jakinaraztera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 eta 42.1 artikuluetan xedatutakoari jarraiki.

4.– Laguntzak jasotzeko eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

***6. artikulua.***– Ebazpena, emateko prozedura eta publizitatea emateko eskumena duen organoa.

1.– Eskaerak aztertzeko eta ebazteko eskumena Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritzak izango du.

2.– Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, eskaerak aztertuko dira eta laguntzak emango zaizkie Agindu honetan aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten guztiei. Programa finantzatzeko esleitutako baliabide ekonomikoak onartu beharreko eskaera guztien estaldurarako nahikoak ez badira, funtsak diru-laguntza jaso behar duten lanpostuen artean banatuko dira proportzionalki.

b) Relación de los puestos de trabajo por los que se solicita subvención, indicando el tipo de contrato de la persona que lo ocupa, la fecha de alta en la empresa, el porcentaje de jornada por la que se encuentran contratada, la retribución anual bruta y el tipo y grado de discapacidad.

c) Memoria explicativa de la situación económica en la que se encuentra la empresa, en la que se exprese, en su caso, el riesgo potencial de desequilibrio financiero y pérdida de puestos de trabajo.

d) Certificado, actualizado y por duplicado, de la Hacienda Foral que acredite que la entidad solicitante de la subvención se encuentra al corriente en sus obligaciones tributarias.

Se entenderá en situación regular de pagos si hubiere obtenido un aplazamiento y lo acredite documentalmente respecto de la deuda aplazada.

e) Certificado de la Dirección Provincial de la Tesorería General de la Seguridad Social, en términos similares a lo previsto en el apartado anterior.

f) Certificado u otra documentación acreditativa de la inscripción del centro en el Registro de Centros Especiales de Empleo.

3.– Si las solicitudes no vinieran cumplimentadas en todos sus términos, o no fueran acompañadas de la documentación preceptiva relacionada en el párrafo anterior, se requerirá a la entidad para que, en un plazo de diez días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, estando obligada la Administración a dictar resolución expresa, así como a notificarla de conformidad con lo dispuesto en los artículos 71.1 y 42.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

4.– El plazo de presentación de solicitudes de estas ayudas será de un mes a partir del día siguiente al de la publicación de esta Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

***Artículo 6.***– Órgano competente para la resolución, procedimiento de concesión y publicidad.

1.– El órgano competente para el examen y la resolución de las solicitudes será la Dirección de Empleo y Formación.

2.– Terminado el plazo de presentación de solicitudes, serán examinadas y se concederán ayudas a todas aquellas que reúnan los requisitos previstos en esta Orden. En el supuesto de que los recursos económicos asignados a la financiación de este programa no sean suficientes para la cobertura de todas las solicitudes que hayan de ser aprobadas, se procederá al reparto de los fondos mediante el prorrateo entre los puestos de trabajo a subvencionar.

3.– Eskaerak Enplegu eta Prestakuntzako zuzendariaren esanbidezko ebazpen bidez onartu edo ezetsiko dira. Diru-laguntza emateko ebazpenean, xedea, zenbatekoa, ordaintzeko modua eta epeak, eta diru-laguntza justifikatzeko modua adieraziko dira.

4.– Aurreko idatz-zatian aipatutako ebazpenak ez du administrazio-bidea agortzen, eta interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Enplegu, Prestakuntza eta Gizarteratzeko sailburuordeari hilabeteko epean, jakinarazpenaren biharamunetik aurrera kontatzen hasita.

5.– Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, Agindu hau EHAAn argitaratu eta biharamunetik aurrera kontatzen hasita. Epe hori amaitu eta esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, diru-laguntza jasotzeko eskaera ezetsitzat hartuko da.

6.– Publizitate-printzipioa betetzeko helburuarekin, eta emateko Ebazpena esanbidez eta modu indibidualizatuan jakinarazteko aukera aparte utzi gabe, Enplegu eta Prestakuntzako zuzendariaren Ebazpen bidez, xedapen honen babesean emandako laguntzen onuradun izan diren enplegu-zentro berezien zerrenda argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, jasotako kopuruak eta emandako diru-laguntzaren aldaketaren xede izan direnak adierazita.

***7. artikulua.***– Dirulaguntza ordaintzeko eta justifikatzeko modua.

Diru-laguntza honako era honetan ordainduko da:

– % 75 lehen ordainketan, emakidaren unean bertan.

– Gainerako % 25a bigarren ordainketan, 2010eko ekitaldia amaitu ondoren. Horretarako, erakunde onuradunak honako hauek aurkeztu beharko ditu:

– 2010eko abenduaren 31n beteta dauden lanpostuen zerrenda, honako hauek adierazita: lanpostua betetzen duen pertsonaren kontratu mota, kontratuan jasotzen den lanaldiaren ehunekoa, eta ezgaitasun mota eta maila. Lanpostuen guztizko kopurua diru-laguntza lortu zutenena baino txikiagoa bada edo denbora mugagabez kontratatutako pertsonek betetako lanpostuen kopurua txikiagoa bada, lan-kontratu horiek suntsitzeko arrazoiak jakinarazi eta Gizarte Segurantzako baja-parteak eta, hala badagokio, 9.1 artikuluan aurreikusitako itzultzeko betebeharraz salbuesteko kasuak agertu direla egiaztatuko duen beste edozein dokumentazio aurkeztu beharko dira.

– Gizarte Segurantzarako kotizazioko dokumentuen kopia (2010eko abenduko TC2 ereduak).

3.– La aprobación o la denegación de las solicitudes se realizará mediante Resolución expresa del Director de Empleo y Formación. En la resolución de concesión se indicará el objeto, el importe, forma y plazos de pago y forma de justificación de la subvención.

4.– La resolución a la que se refiere el apartado anterior no pone fin a la vía administrativa y, contra la misma las personas interesadas podrán interponer recurso de alzada ante el Viceconsejero de Empleo, Formación e Inclusión Social, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de la notificación.

5.– El plazo máximo para resolver y notificar será de seis meses a contar desde el día siguiente a la publicación de esta Orden en el BOPV, transcurrido el cual se entenderá desestimada la solicitud de subvención si no recayera resolución expresa.

6.– A fin de dar cumplimiento al principio de publicidad, y sin perjuicio de la notificación expresa e individualizada de la resolución de concesión, mediante resolución del Director de Empleo y Formación se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco la relación de los centros especiales de empleo que hayan resultado beneficiarios de las ayudas concedidas al amparo de la presente disposición, con expresión de las cuantías percibidas, así como la de aquéllas respecto a las que se haya procedido a modificar la subvención concedida.

***Artículo 7.***– Forma de pago y justificación de la subvención.

El abono de la subvención se efectuará de la manera siguiente:

– Un primer pago del 75% en el momento de la concesión.

– Un segundo pago del 25% restante, una vez transcurrido el ejercicio 2010. Para ello la entidad beneficiaria deberá aportar:

– Una relación de los puestos de trabajo ocupados a fecha 31 de diciembre de 2010, indicando el tipo de contrato de la persona que lo ocupa, el porcentaje de jornada por la que se encuentran contratada, y el tipo y grado de discapacidad. Si ha descendido el número total de puestos de trabajo en relación con los que fueron subvencionados o ha descendido el número de puestos de trabajo ocupados por personas contratadas por tiempo indefinido, deberá informarse sobre las causas de extinción de los correspondientes contratos de trabajo y aportar los partes de baja en la Seguridad Social, y en su caso, cualquier otro documentación que acredite la concurrencia de los supuestos de exención de la obligación de reintegro previstas en el artículo 9.1.

– Copia de los documentos de cotización a la Seguridad Social, modelos TC2, correspondientes al mes de diciembre de 2010.

– Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiri eguneratuen bina ale, enpresak erakunde horiekin dituen betebeharrak egunean dituela egiaztatzen dutenak.

***8. artikulua.***– Diru-laguntzaren baldintza orokorrak.

Dekretu honetan aurreikusitako laguntzak eman eta ordaintzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Enpresa eskatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete dituela egiaztatzea, Ekonomia eta Ogasun Sailak horretarako xedatzen duenari jarraiki.

b) Laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko araudian xedatutakoa betetzea, Prebentzio Zerbitzuen Arautegia eta gainerako lan-arauak onartzen dituen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta bere erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi eta oraindik bideratzeko dagoen edozein itzultzeedo zigor-prozedura amaitzea.

d) Zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorrik jaso ez izana, eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik jaso ez izana, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne.

***9. artikulua.***– Erakunde onuradunaren betebeharrak.

1.– Erakunde onuradunak diru-laguntza jaso duten lanpostuen kopuru bera beteta izan beharko du, 2010eko abenduaren 31ra arte gutxienez. Data horretan bete gabe dagoen lanpostu bakoitzari dagokion laguntza jasotzeko eskubidea galdu egingo da.

Halaber, enplegu-zentro bereziak denbora mugagabez kontratatutako langileek betetzen dituzten eta diru-laguntza jaso duten lanpostuen kopuru berari eutsi beharko dio. Horrela, beraz, diru-laguntzen xede den aldia amaitzen denean diruz lagundutako lanpostuen guztizko kopurua bera izanik ere denbora mugagabez kontratatutako langileek betetako lanpostuen kopurua txikiagoa bada, kontratu mugagabeekin beteta zeuden eta galdu diren lanpostuei dagokien diru-laguntza jasotzeko eskubidea galdu egingo da.

Aurreko guztia gorabehera, diruz lagundutako lanpostuen kopurua txikiagoa izatearen arrazoiak langilearen bidezko iraizpenaren, heriotzaren, erretiroaren,

– Certificados, actualizados y por duplicado, de la Hacienda Foral y de la Seguridad Social, que acrediten que la empresa se encuentra al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones con dichos organismos.

***Artículo 8.***– Condiciones generales de la subvención.

La concesión y pago de las ayudas previstas en el presente Decreto queda condicionada a:

a) La acreditación por parte de las empresas solicitantes del cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social, de conformidad con lo que al efecto disponga el Departamento de Economía y Hacienda.

b) El cumplimiento de lo dispuesto en la normativa en materia de Seguridad y Salud Laborales, conforme a lo establecido en el Real Decreto 39/1997, de 17 de enero, por el que se aprueba el Reglamento de los Servicios de Prevención y demás normas laborales.

c) La terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

d) No estar sancionada ni penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni estar incursa en prohibición legal alguna que le inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de sexo, en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

***Artículo 9.***– Obligaciones de la entidad beneficiaria.

1.– La entidad beneficiaria está obligada a mantener ocupados, al menos hasta el 31 de diciembre de 2010, el mismo número de puestos de trabajo por los que ha recibido subvención, perdiéndose el derecho a la ayuda por cada puesto de trabajo menos que se mantenga ocupado en esa fecha.

Asimismo, el centro especial de empleo deberá mantener el mismo número de puestos de trabajo subvencionados ocupados por personal contratado por tiempo indefinido, por lo que, si al final del periodo subvencionado, a pesar de mantenerse el número total de puestos de trabajo subvencionados, es inferior el número de puestos de trabajo subvencionados ocupados con contrato por tiempo indefinido, se perderá el derecho a la subvención por los puestos de trabajo de tal carácter perdidos.

No obstante todo lo anterior, en el supuesto de que el descenso del número de puestos de trabajo subvencionados sea debido a la extinción del contrato

ezintasun iraunkor osoaren edo absolutuaren, edota baliaezintasun handiaren ondoriozko lan-kontratuaren suntsipena, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuaren 51. artikuluan kontuan hartutako arrazoiak edota langilearen borondatea (enpresa arrunt batera joan izanaren ondorioz) izan badira, jasotzeko geratzen den diru-laguntza kobratzeko eskubidea galdu egingo da, eta ez da eskatuko jasotako kopuruen itzultzea.

2.– Era berean, eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.2 artikuluan ezarritako betebeharrak alde batera utzi gabe, laguntzak jasotzen dituzten erakundeek honako betebehar hauek izango dituzte:

a) Diruz lagundutako jardueren xedea edo izaera nabarmen aldatzen dituzten gorabeheren berri ematea, eta Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailarekin lankidetzan jardutea jarduera horiek egiaztatu, ikuskatu, jarraitu eta kontrolatzeko prozeduretan.

b) Diru-laguntzen zertarakoa eta aplikazioa bermatzea, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren lehenengo tituluan aurreikusitakoaren arabera (dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautu zen, eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta betebeharrak ezarri ziren).

c) Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta Europako funtsen kontrol-organoek eskatzen duten informazio guztia ematea, laguntzen zertarakoaren fiskalizazio-funtzioak betetzen dituztenean.

d) Europako Gizarte Funtsaren finantzaketa aipatzea laguntza horien berri emateko material eta ekintza guztietan.

***10. artikulua.***– Diru-laguntza aldatzea.

Diru-laguntza emateko kontuan izandako baldintzetan egindako aldaketa orok emateko Ebazpenaren aldaketa ekarri ahal izango du, betiere diru-laguntzen onuradun izateko Agindu honetan ezarritako gutxieneko eskakizunei eutsiz. Baldintzen aldaketa horren ondorioz diru-laguntza osoa edo zati bat itzuli behar bada, itzultzeko espedienteari hasiera emango zaio.

***11. artikulua.***– Beste diru-laguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Agindu honetan deskribatutako laguntzak bateragarri izango dira beste edozein diru-laguntza edo laguntzarekin; nolanahi ere, hainbat finantzaketa-

de trabajo por despido declarado procedente, muerte, jubilación, incapacidad permanente total, absoluta o gran invalidez del trabajador o trabajadora, o por las causas contempladas en el artículo 51 del Real Decreto Legislativo 1/1995, de 24 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, o por voluntad del trabajador por su incorporación a una empresa ordinaria, se perderá el derecho al cobro de la subvención pendiente, no exigiéndose el reintegro de las cantidades recibidas.

2.– Asimismo, y sin perjuicio de las obligaciones señaladas en el artículo 50.2 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, que en su caso resulten aplicables, las entidades beneficiarias de las ayudas quedan obligadas a:

a) Comunicar cualquier eventualidad que altere sustancialmente el objeto o naturaleza de las actividades subvencionadas, así como a colaborar con el Departamento de Empleo y Asuntos Sociales en los procedimientos de comprobación, inspección, seguimiento y control de dichas actividades.

b) Garantizar el destino y aplicación de las mismas conforme a lo previsto en el Título Primero del Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco y se establecen los requisitos, régimen y obligaciones de las Entidades colaboradoras que participan en su gestión.

c) Facilitar cuanta información le sea requerida por la Oficina de Control Económico, el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas y las instancias de control de los fondos europeos, en el ejercicio de sus funciones de fiscalización del destino de las ayudas.

d) Mencionar la cofinanciación del Fondo Social Europeo en todos los materiales y acciones de comunicación de estas ayudas.

***Artículo 10.***– Modificación de la subvención.

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión, salvaguardando los requisitos mínimos establecidos en este Decreto para ser beneficiario/a de las subvenciones en el mismo contempladas. En el supuesto de que de tal alteración de las condiciones pudiera derivarse la devolución de la totalidad o parte de la subvención concedida, se iniciará el correspondiente expediente de reintegro.

***Artículo 11.***– Concurrencia con otras subvenciones o ayudas.

Las ayudas descritas en esta Orden serán compatibles con la obtención de cualquier otro tipo de subvención o ayuda sin que, en ningún caso, el importe

iturritatik jasotako laguntzen zenbateko osoak ezin izango du gainditu diruz lagundutako lanpostuen urteko soldata-kostua. Kostu hori gaindituz gero, dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da.

***12. artikulua.***– Jarraipena eta kontrola.

Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak Agindu honen helburuak betetzen direla bermatzeko beharrezkoak diren ikuskapen- eta kontrol-jarduerak egiteko aukera izango du.

***13. artikulua.***– Ez betetzeak.

Agindu honetan aurreikusitako laguntza jaso duten erakunde onuradunak Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53.1 artikuluan aipatzen diren kasuetako batean badaude, edo Agindu honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez badute, Enplegu eta Prestakuntzako zuzendariak Ebazpen bat emango du; horren bitartez, ordaintzeko dauden kopuruak jasotzeko eskubidea galdu duela adieraziko du, eta, hala badagokio, jasotako laguntza eta aplika daitezkeen legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli behar dizkiola, dagozkion gainerako ekintzak aparte utzi gabe, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera. Diru-kopuru horiek diru-sarrera publikotzat hartuko dira dagozkien legezko ondorioetarako, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 64. artikuluan ezarritakoa izango da erantzukizunen erregimena.

***14. artikulua.***– Dirua itzultzeko prozedura.

Aurreko artikuluan aurreikusitako ez-betetzeen kasuan, honako hau izango da jasotako laguntzak itzultzeko prozedura:

a) Enplegu eta Prestakuntzako zuzendariak prozedura hasi dela eta zergatik hasi den adieraziko dio erakunde interesdunari, eta 15 eguneko epea emango dio bidezkotzat hartzen dituen alegazioak aurkez ditzan. Prozedura hasteak, hala badagokio, eten egingo ditu oraindik egin ez diren ordainketak.

b) Alegazioak jaso edo epe hori igaro ondoren alegaziorik aurkeztu ez bada, amaiera emango zaio prozedurari Enplegu eta Prestakuntzako zuzendariaren Ebazpen bidez. Laguntzak itzultzeko prozedura gehienez ere 6 hilabeteko epean ebatzi beharko da.

Ebazpenean arauren bat bete gabe utzi dela adieraziz gero, diru-laguntza jasotzeko eskubidea galdutzat emango da, eta, hala badagokio, Ebazpena jakinarazten denetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean dagozkion diru-kopuruak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Orokorrari itzuli beharra deklaratuko da. Epe hori izango da borondatezko aldiaren epea.

total de las ayudas obtenidas a través de las diferentes fuentes de financiación supere el coste salarial anual de los puestos de trabajo subvencionados. La superación de dicho coste supondrá la minoración de la cuantía a subvencionar.

***Artículo 12.***– Seguimiento y control.

El Departamento de Empleo y Asuntos Sociales podrá realizar las acciones de inspección y control necesarias para garantizar el cumplimiento de las finalidades perseguidas por esta Orden.

***Artículo 13.***– Incumplimientos.

En el supuesto de que las entidades beneficiarias de las ayudas previstas en esta Orden incurriesen en alguno de los supuestos delartículo 53.1 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, o incumpliesen cualquiera de las condiciones establecidas en la presente Orden, el Director de Empleo y Formación mediante la correspondiente Resolución, declarará la pérdida del derecho a la percepción de las cantidades pendientes y, en su caso, la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco, las cantidades percibidas más los intereses legales que correspondan desde el momento del pago de la subvención, sin perjuicio de las demás acciones que procedan, de conformidad con lo establecido en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre. Las referidas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos a los efectos legales pertinentes, siendo el régimen de responsabilidades el previsto en el artículo 64 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

***Artículo 14.***– Procedimiento de reintegro.

El procedimiento para el reintegro de las ayudas percibidas en los casos de incumplimiento previstos en el artículo anterior será el siguiente:

a) El Director de Empleo y Formación comunicará a la entidad interesada la iniciación del procedimiento y las causas que lo fundamentan, concediéndose un plazo de 15 días para que formule las alegaciones que estime oportunas. La iniciación del procedimiento suspenderá, en su caso, los pagos que aún quedaran pendientes.

b) Recibidas las alegaciones o transcurrido el plazo sin que se hubiesen formulado, se pondrá fin al procedimiento por Resolución del Director de Empleo y Formación. El plazo máximo para resolver el procedimiento de reintegro es de 6 meses.

Si la Resolución estimase la existencia de incumplimiento declarará la pérdida del derecho a la percepción de la subvención y, en su caso, la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco, las cantidades que procedan en un plazo máximo de dos meses desde la notificación de la Resolución. Este plazo se considerará como plazo de período voluntario.

c) Kopuru horiek borondatezko epean itzultzen ez badira, horren berri emango zaio Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Sailaren Ogasun eta Finantza Sailburuordetzari, hark, indarrean dauden xedapenetan ezarritakoari jarraiki, premiamendu-bideari ekin diezaion.

XEDAPEN GEHIGARRIA.– Datu pertsonalen babesa.

Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak bere fitxategi automatizatuetan sartuko ditu Agindu honetan araututako laguntza-eskaerak betez lortutako datu pertsonalak.

Halaber, interesdunek Legean aurreikusitako datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzte. Horretarako, idazki bat igorriko diote Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritzari (Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz).

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa***.– Errekurtsoak.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta haren aurka berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuari hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 107. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraiki. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1.a) eta 46. artikuluetan ezarritakoari jarraiki.

***Bigarrena***.– Indarrean jartzea.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko irailaren 22a.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.

c) La falta de reintegro en el período voluntario será puesta en conocimiento de la Viceconsejería de Hacienda y Finanzas del Departamento de Economía y Hacienda del Gobierno Vasco a fin de que se proceda por la vía de apremio según establezcan las disposiciones vigentes.

DISPOSICIÓN ADICIONAL.– Protección de datos de carácter personal.

En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, el Departamento de Empleo y Asuntos Sociales, incorporará a los ficheros automatizados de su propiedad los datos personales obtenidos mediante la cumplimentación de las solicitudes de ayuda reguladas en la presente Orden.

Asimismo, los interesados podrán ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición previstos por la Ley, enviando un escrito en tal sentido a la Dirección de Empleo y Formación del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales (c/ Donostia-San Sebastián, 1-01010 Vitoria-Gasteiz).

DISPOSICIONES FINALES

***Primera***.– Recursos.

La presente Orden pone fin a la vía administrativa y contra ella cabe interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 107 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, conforme a lo establecido en los artículos 10.1.a) y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

***Segunda***.– Entrada en vigor.

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 22 de septiembre de 2010

La Consejera de Empleo y Asuntos Sociales,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.

**ESKABIDEA / *SOLICITUD***

# 6

## Enplegu-zentro berezietan enpleguari eusteko laguntzen programa

## *Programa de ayudas al mantenimiento del empleo en los centros especiales de empleo*

**Urtea/*año* .....................**

ESKATZAILEA / *SOLICITANTE*

Diru-laguntza zenbat kontratu egiteagatik eskatzen den

*Número de contratos por los que se solicita subvención* |__|__|__|

SARRERA ERREGISTROA / *REGISTRO ENTRADA*

LURRALDE HISTORIKOA / *TERRITORIO HISTORICO*

| | | |
|---|---|---|
| ARABA / ÁLAVA | 01 | |
| GIPUZKOA | 20 | |
| BIZKAIA | 48 | |

ESKUALDEA / *COMARCA* |__|__|

UDALERRIA / *MUNICIPIO* |__|__|__|__|__|

Administrazioak betetzekoa/
*A rellenar por la Administración*

|__|__|__|__|__|__|__|__|__|__|__|__|

ESPEDIENTE ZK. / *Nº DE EXPEDIENTE*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA
*Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES
*Dirección de Empleo y Formación*

EUROPAR BATASUNA
UNION EUROPEA
EUROPAKO GIZARTE FUNTSA
FONDO SOCIAL EUROPEO

Akatsak saihesteko, eta zure onuragatik, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren Agindua arretaz irakurtzeko eskatzen dizugu (Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-zentro berezietan enpleguari eusteko laguntzak deitzen dituen Agindua).

*Para evitar errores y en su propio beneficio, le rogamos lea atentamente la Orden de la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales, por la que se convocan las ayudas al mantenimiento del empleo en los centros especiales de empleo de la Comunidad Autónoma del País Vasco.*

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu arautzailea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik hasita.

*El plazo de presentación de las solicitudes de subvención será de un mes desde la fecha de publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la Orden reguladora.*

JARRAIBIDEAK:
Eskabidea Herritarrentzako Zerbitzuaren bulegoetan (Zuzenean Zerbitzua) aurkeztuko da, diruz lagunduko den jarduera gauzatuko den lantokia dagoen lurralde historikoan.
Makinaz edo inprenta-letraz beteko da, zenbaki edo letra bakoitza laukitxo bakotzean jarriko da eta zirkulu batean kasuan kasuko kodea (KOD.) adieraziko da.
Diru-laguntzak jasotzeko eskabideak oso-osorik betetzen ez badira edo derrigor aurkeztu beharreko agiriekin, aurreko paragrafoan jaso direnak, aurkezten ez badira, erakundeari hamar eguneko epea emango zaio akatsa zuzentzeko edo falta diren agiriak aurkezteko, eta agindutako hori egiten ez badu eskabideari uko egin diola ulertuko dela adieraziko zaio. Halakorik gertatzen bada, Administrazioak eskabideari buruzko esanbidezko ebazpena eman eta ebazpen hori jakinarazi beharko du.

*INSTRUCCIONES:*
*La solicitud se presentará en las oficinas del Servicio de Atención Ciudadana – Zuzenean, conrrespondiente al Territorio Histórico donde radique el centro de trabajo en el que se vaya a desarrollar la acción subveniconable..*
*Se rellenará a máquina o con letra de imprenta colocando un número o letra en cada casilla e indicando con un círculo el código (COD.) que corresponda en cada caso.*
*Si las solicitudes no vinieran cumplimentadas en todos sus términos, o no fueran acompañadas de la documentación preceptiva relacionada en el párrafo anterior, se requerirá a la entidad para que, en el plazo de díez días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, estando obligada la Administración a dictar resolución expresa sobre esta solicitud, así como a notificarla.*

DATU PERTSONALAK JASOTZEARI ETA ERABILTZEARI BURUZKO SEGURTASUN-POLITIKAREN ONARPENA

Eman dizkiguzun datu pertsonalak ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZAKO DIRU-LAGUNTZAK izeneko fitxategi automatizatuan sartuko ditugu; fitxategiaren titularra Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza da, eta enpleguarekin zein prestakuntzarekin lotutako dirulaguntzak kudeatzea eta kontrolatzea du helburu. Aldez aurretik emango zaio horren berri Datuak Babesteko EAEko Agentziari, hark baitauzka datuen segurtasun osoa bermatzeko behar diren segurtasun-neurriak.
Zure datuak beste administrazio publiko batzuei lagatzea ere egongo da, Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoko (abenduaren 13ko 15/1999) 21. artikuluan aurreikusi bezala eta Lege horrek bideratutako kasuetan.
Orobat, entitate eskatzaileak agiri hau sinatzerakoan honako hau bermatzen du: jasotako datu pertsonalen titularrei (haien titularitatea duten fitxategietan sartutako datuez ari gara) Datuen Babesaren Lege Organikoko 5. artikuluan ezarritakoaren berri eman zaie aldez aurretik, eta guztiek berariaz eman dute oniritzia.
Bestalde, datu pertsonalen babesari buruz indarrean dauden arauak betez, baduzu sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideez baliatzea, Datu Pertsonalen Babesari buruzko Lege Organikoak berariaz aitortzen duen bezala. Horretarako, baduzu Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritzara jotzea (Donostia kalea z/g, 01010, Vitoria-Gasteiz).

*ACEPTACIÓN DE LA POLÍTICA DE SEGURIDAD EN MATERIA DE RECOGIDA Y TRATAMIENTO DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL*

*Los datos personales que usted nos proporciona pasarán a formar parte de un fichero automatizado denominado SUBVENCIONES DE EMPLEO Y FORMACIÓN, titularidad de la Dirección de Empleo y Formación del Gobierno Vasco, cuya finalidad es la gestión y control de subvenciones relacionadas con el empleo y formación, previamente notificado a la Agencia Vasca de Protección de Datos y que cuenta con las medidas de seguridad necesarias para garantizar la total seguridad de los datos.*
*Sus datos podrán ser objeto de cesión a otras Administraciones Públicas en los términos previstos en el artículo 21 de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal y en los supuestos habilitados por la dicha Ley.*
*Asimismo la entidad solicitante mediante la firma de este documento garantiza que los titulares de datos de carácter personal contenidos en el mismo, relativos a datos incluidos en ficheros de su titularidad, han sido previamente informados del contenido de lo establecido en el artículo 5 de la Ley Orgánica de Protección de Datos y que cuenta con el consentimiento expreso de todos ellos para el presente tratamiento.*
En cumplimiento con la normativa existente sobre protección de datos de carácter personal, usted podrá ejercer los derechos de acceso, cancelación, rectificación y oposición que expresamente reconoce la LOPD poniéndose en contacto con la Dirección de Empleo y Formación del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco, c/ Donostia-San Sebastián, 1 –01010 Vitoria-Gasteiz

## ENPLEGU-ZENTRO BEREZIAREN DATUAK
## *DATOS DEL CENTRO ESPECIAL DE EMPLEO SOLICITANTE*

| Identifikazio Fiskaleko Kodea / *N.º de Identificación Fiscal* | Enpresaren izena / *Nombre o Razón Social* |
|---|---|
| | |

**Jakinarazpenetarako helbidea / *Domicilio a efectos de notificación***

| Kalea / *Calle* | Zenbakia / *Número* | Solairua / *Piso* | Letra |
|---|---|---|---|
| | | | |

| PK / *CP* | Herria / *Localidad* | Lurraldea / *Provincia* |
|---|---|---|
| | | |

**Sozietatearen helbidea / *Domicilio social***

| Kalea / *Calle* | Zenbakia / *Número* | Solairua / *Piso* | Letra |
|---|---|---|---|
| | | | |

| PK / *CP* | Herria / *Localidad* | Lurraldea / *Provincia* |
|---|---|---|
| | | |

| Harremanetarako pertsona / *Persona de contacto* | Telefonoa / *Teléfono* | Faxa / *Fax* | E-mail |
|---|---|---|---|
| | | | |

| Izaera Juridikoa / *Forma Jurídica* | | |
|---|---|---|
| Sozietate Anonimoa / *Sociedad Anónima* | 01 | |
| Kooperatiba / *Sociedad Cooperativa* | 02 | |
| Lan-Sozietate Anonimoa / *Sociedad Anónima Laboral* | 04 | |
| Ondasun-Erkidegoa / *Comunidad de Bienes* | 05 | |
| Sozietate Mugatua / *Sociedad Limitada* | 06 | |
| Bakarkako Enpresaria / *Empresario Individual* | 07 | |
| Sozietate Zibila / *Sociedad Civil* | 08 | |
| Eraldaketarako Nekazaritza-Sozietatea / *Sociedad Agraria de Transformación* | 09 | |
| Irabazi-Asmorik gabeko Elkarteak / *Asociaciones Privadas sin ánimo de lucro* | 10 | |
| Erantzukizun Mugatuko Lan-Sozietatea / *Sociedad Limitada Laboral* | 11 | |
| Administrazioa / *Administración* | 12 | |
| Enpresari-Elkarteak edo Sindikatuak / *Organizaciones Patronales o Sindicales* | 13 | |
| Irabazi-Asmorik gabeko Bestelako Elkarteak / *Otras Entidades sin ánimo de lucro* | 14 | |
| Bestelakoak / *Otras* | 99 | |

Jarri (X) bat behar den tokian / *Marque con (X) lo que proceda*

| Jarduleraren Sektorea / *Sector de Actividad* | | |
|---|---|---|
| Nekazaritza, Abeltzaintza, Ehiza eta Basogintza / *Agricultura, Ganadería, Caza y Selvicultura* | A | |
| Arrantza / *Pesca* | B | |
| Erauzketa-Industriak / *Industrias Extractivas* | C | |
| Energiazko Ekoizkinak Ateratzea / *Extracción de Productos Energéticos* | CA | |
| Bestelako Meak Ateratzea / *Extracción de otros Minerales* | CB | |
| Manufaktura-Industria / *Industria Manufacturera* | D | |
| Elikagaien, Edarien eta Tabakoaren Industria / *Industria de Alimentación, Bebidas y Tabaco* | DA | |
| Ehunen eta Jantzien Industria / *Industria Textil y de la Confección* | DB | |
| Larruaren eta Oinetakoen Industria / *Industria del Cuero y del Calzado* | DC | |
| Zuraren eta Kortxoaren Industria / *Industria de la Madera y del Corcho* | DD | |
| Paperaren Industria; Argitalpenak eta Arte Grafikoak / *Industria del Papel; Edición y Artes Gráficas* | DE | |
| Petrolioa Fintzea eta Erregaiak Tratatzea / *Refino de Petróleo y Tratamiento de Combustibles* | DF | |
| Kimikaren Industria / *Industria Química* | DG | |
| Kautxua Eraldatzeko Industria / *Industria de la Transformación del Caucho* | DH | |
| Metalezkoak ez diren bestelako Mea-Ekoizkinen Industriak / *Industrias de otros productos minerales no metálicos* | DI | |
| Metalurgia eta Metalezko Ekoizkinak Egitea / *Metalurgia y Fabricación de Productos Metálicos* | DJ | |
| Makineriaren Industria / *Industria de la Construcción de Maquinaria* | DK | |
| Elektrizitateko, Elektronikako Gaien eta Tresnaren Ind. / *Industria de Material y Equipo Eléctrico, Electrónica* | DL | |
| Garraio-Gaiak Egitea / *Fabricación de Material de Transporte* | DM | |
| Zenbait Manufakturaren Industriak / *Industrias Manufactureras Diversas* | DN | |
| Elektrizitatea, Gasa eta Ura Ekoiztu eta Banatzea / *Producción y Distribución de Electricidad, Gas y Agua* | E | |
| Eraikuntza / *Construcción* | F | |
| Merkataritza, Ibilgailu Konponketak / *Comercio, Reparación de Vehículos* | G | |
| Ostalaritza / *Hostelería* | H | |
| Garraioa, Bilketa eta Komunikazioak / *Transporte, Almacenamiento y Comunicaciones* | I | |
| Finantza-Bitartekaritza / *Intermediación Financiera* | J | |
| Higiezin-Jarduerak eta Alokairukoak / *Actividades Inmobiliarias y de Alquiler* | K | |
| Herri-Administrazioa, Defentsa eta Gizarte-Segurantza / *Administración Pública, Defensa y Seguridad Social* | L | |
| Hezkuntza / *Educación* | M | |
| Osasun eta Albaitaritza-Jarduerak / *Actividades Sanitarias y Veterinarias* | N | |
| Bestelako Gizarte-Zerbitzuak eta Egindako Zerbitzuak / *Otras Actividades Sociales y Servicios Prestados* | O | |
| Etxerako Langileak dituzten Etxebizitzak / *Hogares que emplean personal doméstico* | P | |
| Lurraldez Kanpoko Erakundeak / *Organismos Extraterritoriales* | Q | |

Jarri (X) bat behar den tokian / *Marque con (X) lo que proceda*

**DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERA OINARRITZEN DUTEN LANPOSTUEN LABURPEN-KOADROA:**
***CUADRO RESUMEN DE LOS PUESTOS DE TRABAJO POR LOS QUE SE SOLICITA SUBVENCIÓN:***

| | | Zk. / *N.º* |
|---|---|---|
| LANPOSTUEN KOPURUA GUZTIRA<br>*TOTAL DE PUESTOS DE TRABAJO* | | |
| | | |
| Kontratu motaren arabera<br>*Según tipo de contrato* | Mugagabeak<br>*Indefinidos* | |
| | Aldi baterakoak<br>Iraupen jakinekoak<br>*Temporales*<br>*Dur. Determinada* | |
| | | |
| Lanaldiaren arabera<br>*Según jornada* | % 100 / *100%* | |
| | % 75 / *75%* | |
| | % 50 / *50%* | |
| | % 25 / *25%* | |
| | | |
| | | |

**DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERA OINARRITZEN DUTEN LANPOSTUEN ZERRENDA ZEHAZTUA**
***RELACION DETALLADA DE LOS PUESTOS DE TRABAJO POR LOS QUE SOLICITA SUBVENCIÓN***

| KONTRATATUAREN IZEN-ABIZENAK<br>*NOMBRE Y APELLIDOS DE LA PERSONA CONTRATADA* | KONTRATU MOTA<br>*TIPO DE CONTRATO* | | ALTAREN DATA ENPRESAN<br>*FECHA DE ALTA EN LA EMPRESA* | LANALDIAREN %<br>*% JORNADA* | URTEKO ORDAINSARI GORDINA<br>*RETRIBUCION ANUAL BRUTA* | DESGAITASUNA<br>*DISCAPACIDAD* | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | ALDI BATERAKOA/ IRAUPEN JAKINEKOA<br>*TERMPORAL/ DE DURACION DETERMINADA* | MUGAGABEA<br>*INDEFINIDO* | | | | MOTA / *TIPO* | % |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |

**DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERA OINARRITZEN DUTEN LANPOSTUEN ZERRENDA ZEHAZTUA**
**RELACION DETALLADA DE PUESTOS DE TRABAJO POR LOS QUE SOLICITA SUBVENCIÓN**

| KONTRATATUAREN IZEN-ABIZENAK *NOMBRE Y APELLIDOS DE LA PERSONA CONTRATADA* | KONTRATU MOTA *TIPO DE CONTRATO* | | ALTAREN DATA ENPRESAN *FECHA DE ALTA EN LA EMPRESA* | LANALDIAREN % *% JORNADA* | URTEKO ORDAINSARI GORDINA *RETRIBUCION ANUAL BRUTA* | DESGAITASUNA *DISCAPACIDAD* | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | ALDI BATERAKOA/ IRAUPEN JAKINEKOA *TERMPORAL/ DE DURACION DETERMINADA* | MUGAGABEA *INDEFINIDO* | | | | MOTA / *TIPO* | % |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |

Nik, ____________________________________ jaunak/andreak, enpresa eskatzailea ordezkatuz eta haren izenean, ZIN EGITEN DUT:
(Jarri (X) bat behar den tokian)

*D/ña.:____________________________________, en nombre y representación de la empresa solicitante DECLARA:*
*(Marque con una x lo que proceda)*

Lehena.-

*Primero.-*

☐ a) Minusbaliatuen Gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 38. artikuluan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloko araudian xedatutakoa betetzen du eskatzaileak, Prebentzio Zerbitzuen Araudia eta gainerako lan-arauak onartzen dituen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuan ezarritakoari jarraiki.

☐ *a) Que cumple lo dispuesto en el artículo 38 de la Ley 13/1982, de 7 de abril, de Integración Social de Minusválidos y la normativa en materia de Seguridad y Salud Laborales, conforme a lo establecido en el Real Decreto 39/1997, de 17 de enero, por el que se aprueba el Reglamento de los Servicios de Prevención y demás normas laborales.*

☐ b) Eskatzaileak ez du Minusbaliatuen Gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 38. artikuluan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloko araudian xedatutakoa betetzen, Prebentzio Zerbitzuen Araudia eta gainerako lan-arauak onartzen dituen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuan ezarritakoari jarraiki.

☐ *b) Que no cumple lo dispuesto en el artículo 38 de la Ley 13/1982, de 7 de abril, de Integración Social de Minusválidos y la normativa en materia de Seguridad y Salud Laborales, conforme a lo establecido en el Real Decreto 39/1997, de 17 de enero, por el que se aprueba el Reglamento de los Servicios de Prevención y demás normas laborales.*

**Bigarrena.-**

***Segundo.-***

☐ a) Ez nago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta bere organismo autonomiadunek emandako izaera bereko laguntzak direla-eta hasitako inolako dirua itzularazteko prozeduraren edo zigorrak ezartzeko prozeduraren baitan.

☐ *a) Que no se halla incurso/a en procedimiento alguno de reintegro o sancionador iniciado como consecuencia de subvención o ayuda de la misma naturaleza otorgada por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi o de sus organismos autónomos.*

☐ b) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta bere organismo autonomiadunek emandako izaera bereko laguntzak direla-eta hasitako dirua itzularazteko prozeduraren edo zigorrak ezartzeko prozeduraren baitan nago.

☐ *b) Que se halla incurso/a en procedimiento de reintegro o sancionador iniciado como consecuencia de subvención o ayuda de la misma naturaleza otorgada por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi o de sus organismos Autónomos.*

**Hirugarrena**

***Tercero***

☐ a) Eskatzaileak ez du diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzea dakarten zigor zein administrazio arloko zehapenik jaso, ezta horretarako desgaitzen duen legezko debekurik ere.

☐ *a) Que no se halla sancionado penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni está incurso en prohibición legal alguna que le inhabilite para ello.*

☐ b) Diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzea dakarten zigor edo administrazio arloko zehapenen bat jaso du eskatzaileak, edo horretarako desgaitzen duen legezko debekua..

☐ *b) Que se halla sancionado penal o administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, o está incurso en prohibición legal alguna que le inhabilite para ello.*

**Laugarrena**

***Cuarto***

☐ a) Ez dut sexu-bereizkeria egiteagatik zigor administratibo edo penalik jaso, ezta euskal herri-administrazioen laguntza eskuratzeko debekurik, otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea (4/2005) dela bide.

☐ a) *Que no ha sido sancionado administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo, ni sancionado con la prohibición de concurrir a las convocatorias de subvenciones y ayudas de las administraciones públicas vascas, en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de hombres y mujeres.*

☐ b) Sexu-bereizkeria egiteagatik zigor administratibo edo penala, edo euskal herri-administrazioen laguntza eskuratzeko debekua jaso dut, otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea (4/2005) dela bide. Zehapenaren iraupena ........... urtekoa eta/edo ........ hilekoa da, ................ egunetik hasita.

☐ b) *Que ha sido sancionado administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo, o sancionado con la prohibición de concurrir a las convocatorias de subvenciones y ayudas de las administraciones públicas vascas, en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de hombres y mujeres, durante .................. años y/o ................ meses desde el día .....................*

**Bosgarrena.-**

***Quinto.-***

☐ Que los datos consignados en la presente solicitud se ajustan a la realidad.

☐ *Que los datos consignados en la presente solicitud se ajustan a la realidad.*

.......................................n ..............eko ............................aren ..............an

*En ................................. a .......... de ......................... de ................*

Izenpea */ Firma*:

Izpta. / Fdo.: ______________________
(Inprenta-letraz idatzi izenpetzailearen izena)
*(Indique el nombre del firmante con letra de imprenta)*

## DERRIGORREZKO AGIRIAK

Dirulaguntzetarako eskabideak oso-osorik bete beharko dira eta agiri hauekin batera aurkeztu beharko dira nahitaez:

a) Gizarte Segurantzako kotizazioko 2010eko urtarrileko TC2 ereduen kopiak.

b) Diru-laguntzaren eskaera oinarritzen duten lanpostuen zerrenda, ondokoak adierazita: betetzen dituen pertsonen kontratu motak, enpresako alta-data, kontratuan jasotzen den lanaldiaren ehunekoa, urteko ordainsari gordina eta desgaitasun mota eta gradua.

c) Enpresaren egoera ekonomikoa azaltzen duen memoria non adieraziko den, hala balegokio, finantza-desoreka izateko eta lanpostuak galtzeko balizko arriskua.

d) Diru-laguntza eskatu duen enpresak bere zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatuko duen Foru Ogasunaren ziurtagiria, eguneratua eta ale bitan.

Atzerapena lortzen duenean eta dokumentu bidez egiaztatzen duenean ulertuko da enpresa arauzko egoeran dagoela ordainketei dagokienez.

e) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiko Probintzia Zuzendaritzaren edo, kooperatiba-sozietateen kasuan, dagokion erakundearen ziurtagiria, aurreko idatz-zatian aurreikusitakoaren antzeko baldintzetan.

f) Ziurtagiria edo beste dokumentazio bat, Enplegu-Zentro Berezi-Erregistroan zentroaren inskripzioa egiaztatzen duena.

## *DOCUMENTACIÓN PRECEPTIVA*

*Las solicitudes de subvención deberán cumplimentarse en todos sus términos, y deberán venir acompañadas necesariamente de la siguiente documentación:*

*a) Copia de los documentos de cotización a la Seguridad Social, modelos TC2, correspondientes al mes de enero de 2010.*

*b) Relación de los puestos de trabajo por los que se solicita subvención, indicando el tipo de contrato de la persona que lo ocupa, la fecha de alta en la empresa, el porcentaje de jornada por la que se encuentran contratada, la retribución anual bruta y el tipo y grado de discapacidad.*

*c) Memoria explicativa de la situación económica en la que se encuentra la empresa, en la que se exprese, en su caso, el riesgo potencial de desequilibrio financiero y pérdida de puestos de trabajo.*

*d) Certificado, actualizado y por duplicado, de la Hacienda Foral que acredite que la Empresa solicitante de la subvención se encuentra al corriente en sus obligaciones tributarias.*

*Se entenderá en situación regular de pagos la Empresa que hubiere obtenido un aplazamiento y lo acredite documentalmente respecto de la deuda aplazada.*

*e) Certificación de la Dirección Provincial de la Tesorería General de la Seguridad Social, o de la entidad correspondiente en el caso de Sociedades Cooperativas, en términos similares a lo previsto en el apartado anterior.*

*f) Certificado u otra documentación acreditativa de la inscripción del centro en el Registro de Centros Especiales de Empleo.*

## ARGIBIDEAK / *INFORMACIÓN*

# 901 22 29 01

zuzenean
herritarrentzako zerbitzua
atención ciudadana

# 012

zuzenean
herritarrentzako zerbitzua
atención ciudadana
Ramiro de Maeztu 10, behea
01005 Vitoria-Gasteiz

zuzenean
herritarrentzako zerbitzua
atención ciudadana
Gran Vía 85
48011 Bilbao

zuzenean
herritarrentzako zerbitzua
atención ciudadana
Andia 13
20004 Donostia-San Sebastián